



**SEGURAKO UDALA**

## **SEGURAKO UDALA**

### *Iragarkia*

Arauzko jendaurreko informazio epea iragan denez batere erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe, behinbetikotzat jo dira Udal Batzarrak 2018ko urriaren 18an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatu eta aldatzekoak, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriekin, aldatutako testoak honakoak izanik:

#### **1.- Hiri-Ondasun higiezin gaineko Zerga.**

Hobari hauek onartzen dira:

##### V. HOBARIAK

Martxoaren 19ko, 4/2003 Foru Arauko II. Kapituluko bost atalak aldatzen duen, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko, 12/1989 Foru Arauko 15. artikuluan araututakoaren arabera, jarraikoak onartzen dira:

Kuota osoaren %40eko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean eta egoera hori frogatzen duten bitartean.

Emakidarako baldintzak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ohiko etxebizitza: Errolda-ziurtagiria.
- 150.000 €ko edo gutxiagoko etxebizitzaren balio katastrala: O.H.Z. ordainagiriaren kopia.
- Foru Aldundiko Gizartekintza Zerbitzuak igorritako familia ugariaren titulua indarrean.
- Beste ondasun higiezin batzuren jabea ez izatearen zinpeko aitortpena (garaje bat, trastero bat eta dagokion kasuan, bere jarduera profesionalaren lokala izan ezik).
- Eskariak aurkezteko epea: Urtarrilaren 1etik 31ra.

Hobari hau bateraezina izango da Ondasun Higiezin gaineko Zergan aplikagarri den beste edozein hobarirekin.

#### **2.- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko Zerga.**

Ordenantza Fiskal arautzailearen eranskina:

Hobari hauek onartzen dira:

Turismo, autobus eta kamioi motako ibilgailuek hobaria izango dute zerga kuotan, kontsumitzen duten karburante motaren arabera, motorraren ezaugarrien arabera eta karburante horren errekuntzak ingurugiroan duen eraginaren arabera, beti ere ondoren zehazten diren baldintzak eta betebeharrak betetzen badira:

A) Fabrikako homologazioaren arabera, erregai gisa gasa erabiltzen duten ibilgailuak badira eta

isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloarentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: %20.

B) Fabrikako homologazioaren arabera, ibilgailu hibridoak badira (elektriko-gasolina, elektriko-diesel edo elektriko-gasa motorrak) eta isurpen kutsagarriak gutxitzeko, bere mota eta modeloarentzat egokiak diren tresna katalizatzaileez hornituak badaude: %40.

C) Isurpen gabeak edota, motor elektrikoa duten ibilgailuak badira: %60.  
Aurreikusitako hobariak jaso ahal izateko, derrigorrezkoa izango da subjektu pasiboek hobaria eskatzea, ibilgailu berriaren ezaugarrien fitxa teknikoa erantsiz.

### 3.- Udal eskumeneko zerbitzuak prestatu eta iharduerak egiteagatiko Tasa.

Ordenantza arautzaileko eranskinaren epigrafeetatik ondorengo kuotak edo tipoak aldatzen dira:

#### \*- Zaborrak etxez-etxe biltzeagatiko tasa:

Okupatutako Etxebizitzak.....	153,45 €.
Hutsik dauden etxebizitzak.....	107,15 €.
Baserriak .....	123,04 €.
Tabernak.....	373,27 €.
Merkataritza.....	186,63 €.
Jatetxeak.....	512,89 €.
Tailerrak: 20 langile arte.....	410,59 €.
Tailerrak: 20 langile baino gehiago.....	535,01 €.
San Juan Egoitza.....	773,95 €.

Aldatutako Ordenantza eta Eraskinen gainerako hitzbaketak 1989ko abenduaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren, eta hemen aipatutzat jotzen dira, osorik hartuta bailiren, alegia.

Hau guztia, Gipuzkoako Ogasun Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurrikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzetan egindako finkatze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra interesatuek tartearri ahal izango dute errekurtsio kontentzioso-administratiboa Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide kontentzioso-administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egunaren biharamonetik hasita.

Segura, 2018ko abenduak 13.- ALKATEAK.



## SEGURAKO UDALA

### *Akats zuzenketa*

Akats bat ikusi dugu Hiri-ondasun hogiezin gaineko Zergan gaztelaniazko iragarkian, 2018ko abenduaren 24an argitaratu zen alean (246 zkia.) eta honen bidez, zuzenketa egiten da:

*“Bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa y mientras acrediten dicha condición”. Dioenean*

*“Bonificación del 40% de la cuota íntegra del impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa y mientras acrediten dicha condición”, esan behar du.*

Segura, 2019ko urtarrilaren 17a.— Alkatea.